



## **Astelehenetik aurrera indarrean sartuko dira Andoaingo Udalak HIRIBUS zerbitzua egokitzeko hartutako neurri berriak**

- **Eskola sartu-irtenekin bat etorriz, goizeko 8:30etako eta eguerdiko 12:30etako zerbitzua beste autobus batekin errefortzatuko da**
- **Alejandro Calonge auzorainoko zerbitzua mantentzea erabaki da, orain arteko ordutegi, maiztasun eta ibilbideak mantenduko direlarik**
- **Irailak 7tik aurrera, hiribusa ordaindu beharko da, billeteak ohiko prezioetan: arrunta 0,60€, jubilatua 0,20€ eta 3 urtez azpiko haurrak dohainik**

COVID19ak eguneroko jarduna baldintzatzen jarraitzen du, eta herriko HIRIBUS autobus urbano zerbitzuari eragiten dioten erabaki ezberdinak ipiniko dira martxan datorren astelehenean, hilak 7an.

Besteak beste, herriko ikastetxeen ikasturte berriaren hasierarekin bat etorriz, goiz eta eguerdiko ordutegian, hau da 8:30etako eta 12:30tako zerbitzua, beste autobus batekin errefortzatzea erabaki du Andoaingo Udaleko Zerbitzu sailak. Erabiltzaileek modu seguru eta erosoagoan bidaiatzea da helburua.

Azken hilabeteetan egin den moduan, Alejandro Calonge auzoraino zerbitzua mantenduko da, orain arteko maiztasunak eta ibilbideak mantenduz. Egunero, zerbitzu ordu guztietan iritsiko da Alejandro Calonge auzora, asteazkena eta larunbata izan ezik (10:30k eta 11:30tako bidaietan hilerriko buelta egiten duelako).

Azkenik, irailak 7tik aurrera, hiribusa ordaindu beharko dela jakinarazten da, billete edo txartelak ohiko prezioetan mantenduko direlarik: arrunta 0,60€, jubilatua 0,20€ eta 3 urtez azpiko haurrak dohainik.

Andoaingo Udalak garraio zerbitzu seguru eta egokia eskaini nahi die andoaindarrei, eta horregatik, gogorarazten da ezinbestekoa dela maskararen erabilera, baita hiribusean ere.

**Andoain, 2020ko irailak 4**